

**ATEAK ZABALTZEKO JARDUNALDIA
TXISTUA
2010eko martxoaren 8a**

2010eko martxoaren 8an Musikenek Ateak Zabaltzeko jardunaldia antolatuko du Txistu espezialitatean. Bertan esku hartuko du, izena eman nahi dutenez gain, espezialitateko iakasle den Aitor Amilibiak.

Nori zuzenduak?

Musikenen goi-mailako Txistu ikasketak egiteko interesa duten ikasleei.

Bi motatako ikasleak egongo dira:

Aktiboak: Musikenen goi-mailako Txistu ikasketak egin nahi dituzten txistu ikasleak

Entzuleak: jardunaldi hauetara etortzeko interesa duen edonor.

Zein da jardunaldien helburua?

- Ikastegiko ikasleekin Musikenen egiten den lana erakustea.
- Musikeneko ikasle izan nahi dutenak bideratzea, gainditu beharreko sarrera-probak direla eta.
- Proba hori gainditzeko ikaslearen maila baloratzea, lantzeko proposatzen diren piezak entzunez.
- Proba gaindituz gero ikasleek zein ikasketa-plan izango duten azaltzea.

Zer egin behar dut joateko?

Jardunaldira etorri ahal izateko **erreserba aurrez egitea** beharrezkoa da, **izena emateko orriaren bitartez**

Zein da lan egitasmoa?

ASTELEHENA, 2010eko martxoaren 8a, 10.00etan, Ateak Zabaltzeko Jardunaldiaren aurkezpena Aitor Amilibia irakaslearen eskutik Easo Abesbatzaren egoitzan.

Non dago?

Coro Easo Abesbatzaren egoitza

Paseo Doctor Marañón 20, 20009

Donostia

Kontakturako telefonoa: 00 34 943 316778

E-mail info@musikene.net

Informazio gehiago behar dut...

Egin kontaktua zuzenean gurekin eta zure zalantzak argituko ditugu: jalba@musikene.net